



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIONES**

TRATAMENDUA





BEGIRUNEZKO TRATAMENDUA

Tratamenduak gizarte-harremanen isla izan ohi dira, eta harreman horiek aldakorrek diren heinean, tratamendua ere aldatzen joaten da. Testu parlamentarioak eta administratiboak formaltasunez idatzi behar dira, formala baita jatorri duten toki soziala. Hala ere, tratamendua gaur egun erabiltzerakoan beharrezkoa da kontuan izatea, batetik, hizkuntzak duen tradizioa eta, bestetik, arian-arian nagusitzen doazen modu demokratikoak eta estilo funtzionala.

Hauek izango dira jarraibide orokorrak. Legebiltzarraren barruan *jaun* eta *andre* izango dira tratamendu-formula bakarrak (izen-deiturekin edo deitura hutsekin erabili daitezke). Alabaina, administrazio batetik besterako harreman formaletan eta idazki edo ekitaldi bati arrandia eman nahi zaionean *txit garai* eta *txit prestu* formulak ere erantsi dakizkieke aurrekoei (karguarekin edo izen-deiturekin bakarrik erabili daitezke). Tratamenduen forma laburrak, hain zuzen, helbideetan (karta-azaletan) erabili daitezke (*jn.*; *and.*; *t. g.*; *t. p.*) Testuan barruan, ordea, osorik idatziko dira tratamendu-hitzak.

Karta-azaletan eta orriaren buruan edo oinean (aukeran): Julian Beldarrain Astienza *jn.*; Mirian Gorriti Pelayo *and.*; Idoia Zenarrutzabeitia Beldarrain *and. t. g.*; Antonio Maura Barandiaran *jn. t. p.*; Lehendakari *jn. t. g.*; Diputatu Nagusi *jn. t. g.*; Sailburu *and. t. p.*

Gutunen agurrean: Andre txit garaia.; Jaun txit prestua.; Andre agurgarri hori.; Jaun estimatua.; Andre hori:

Hitzaldietan: Balza jauna; lehendakariorde andrea...

Testu barruan: Sar bitez aretora Marta Urresti Morales andrea eta Jesus Martin Belauste jauna. Egidazu kasu, Egibar jauna. Ondoren, Rubalkaba eta Barrio jaunak eta Celaá eta Alzelai andreak mintzatu dira. Ongietorri egingo diogu Juan Jose Ibarretxe Markuartu jaun txit garaiari.

Erdarazko tratamenduei dagokienez, izenaren aurrean badoaz, txikiz idatziko dira: *lord Byron*, *sir Lawrence Olivier*...

Tratamenduak izenaren orde zaudenean, ordea, larriz idatziko dira: Maiestate, Gorentasun, Santutasun...

Euskarak izenarekin batera bere egin dituenak ere, larriz: On Jose Miel Barandiaran, Don Juan Manuel...

Ez da tratamendurik erabiliko lehenengo pertsona erabiltzean, sinaduretan, zerrendetan eta formularioetan.

Agurgarri kalifikatiboa gutunetako agurrean erabili daiteke, formaltasuna nabarmentzeko: andre agurgarri hori:...



